

BERRIZ ERE GIPUTZEZ.—Aurreko zenbakian *Giputza* deituraz zenbait ohar eman genituen, XIV eta XV. mendetan ezagutzen ziren deitura bezala. Baina ez genuen uste deitura hori oraindik bizirik zenik Ifar Euskal Herrian *Iphutcha* bazela jakinarte. Baionato Institut d'Etudes Basques, Bordeleko Unibertsitatearen babespean berriki sortua, euskal kultura eta hizkuntzari buruzko zertifikatuak banatzean hartzaileetako bat zen Marie-Pierre Iphutcha. Hala irakurtzen zen *Herria* asterekoaren 1758 zenbakiaren 7. orrialdean (1984ko ekainaren 21ekoa).

EZINA ESKAINTZEN.—Eguneroko lana utzi eta erabat literaturgintzara emana bizi ahal izateko tentaziorik ia izan duen, galde egiten zion *Habe*-ko ordezkariak Yon Etxaideri (ikus *Habe*, 40. zenb., 1984-IV-1). Gizon bati holako galdera bururatu behar zaionik pentsatzea bera ere itxura gabea da. Urkatuaren etxean soka aipatzea bezalakoa denez. Denboraz patxada lasaian bizi den arinen bati edo gogoratzen zaio holako galderarik, eta ez bere lanez ogia jan beharra duen bati, eta askoz gutiago familiko guraso den bati.

Harritzekoa da ez ohartzea ere lehen aberriaren idealez hainbeste lan egin duen idazlea oraindik etsipendurik ikusi beharra. Baina, *Habe*-ko galdegilea, dirudienez, inoiz ez da kezkatu euskal idazlea zertaz bizi den jakiteaz ere. Beste batzuk ohartu ez diren bezala. Eta, egoera honi soluzio biderik ematen ez bazaio, gure herri autonomiaren barruan behinik-pehin, euskal literaturak betiko porrot egindo du.

Gure kultura urriak hirugarren munduko erak erakusten dizkigu. Eta *Habe*-koa ez da jabetu, alfabetatze euskalduntze lanetan, irrati eta telebistakoetan, itzultzaileenetan (naiz eta paper-busti bihurtuko diren aktak euskaratzen) laguntzak daudela. Laguntzak dituen euskarazko liburuak argitara-

tzen dituzten argitaletxeek, naiz eta egileen eskubideak lapurtu, zenbait tokitan kalegarbitzaile izateko ere euskara eskatzen denean. Baina, Euskal Herri guzian idazle bakar bat bera ere ez dago literaturgintzarako liberatua; eta, sorke-tazko literatura indartzen ez duen herriaren hizkuntza heriotzara bidean doa lasterka batean. Eta galdera ustelak egin nahi ez dituenak hobe du alde aurretik pentsatu. Munduan ez bai dago gauza txarragorik ez daukanaren borondatea baino.

Jokabide kaxkarren jarreraz, Etxaidek bizitzeko gogorik ez eta euskarak bizitzerik merezi ez.

HOBERENEN HAUTAKETAZ.—Aurtengo maiatzean publikoki eta hots handiz adierazi digute egunkari eta aldizkari ospetsuek nagusiki eratu zuten nazioarteko *erreferendum* batean, inglesak, espainolak, frantsesak, austro-hungariarrak (alemanak barne direla) eta italiarrak partaide, Europak inoiz eman dituen idazlerik onenak hautatu dituztela.

Jakina da holakoetan urak bakoitzak bere errotara eroaten dituela. Behar bada lehenengo hiru edo laurak izan daitezke inork zalantzarik ez jartzekoak: Shakespeare, Goethe, Cervantes, Dante, Molière... ez da gaizki. Hala ere, guk geure zalantzak. Grezia zaharrekoek gure egungo kulturatik urrutitxo nonbait. Baina kostako zaie kazeta eta aldizkariari Europari bere erroak moztea. Beste ehundaka urte batzu igaro ondorean zer ikuspegi izango ote da?

Baina, harrigarriena zera da, Unamuno 45. jartzea eta Dostoyewsky kale. Bilbotar filosofoa berekoia eta harroa bazen ere, ez dut uste bere maisuetarikotzat zuen errusoa bere atzetik jarriko zuenik eta gutiago baztertu.

Hautaketa horrek, zera gogoratzen dit, behin Ingalaterran, Chaplin (Txarlot)-en sinadura nork hobeto egin lehiaketa